

IKASTETXE NAGUSIA: ERABERRITZEN ASIA

Ezia ta Jakintzako Ministroak itz auek esan ditu: «ikasaldi gogorra degu bidean. Ontan ez det atzipenik». Itz oiek, 1968-1969'ko Ikasteroa ofizialki asterakoan esan zituan. Ta benetan esateko, Villar Palasi jaunak artu duan lanerako taldeak, oraintxe erakutsi bearko du bere lanerako gaitasuna.

Bere buru-jabe dan Unibersidadea; Unibersidadeko Zaitzago berriak; bekak; ikasle-alkartasunen Agiria; itz batean: udara guzian mamitzen egon dan eraketa, orain asiko da bere bidean aurrera. Ta egindako bidea luzea izan ba-da, egiteko askoz luzeagoa izango da. «Egia esan, nere iritziz egina dana oso gutxi izan da; baiña egin dan guzia asmo baten eta antolaketa bakararren barruan egin izan da».

Ain korapilotsua dan antolaketa, ta Unibersidadekoa ezta ortan errezetakoa, ezin diteke illabete batzuetan burutu. Orregatik Villar Palasi'k bide orri jarraitu bear diola jakitea, pozgarri zaigu. Berak esan du: «gogo barez, aide erabakiz eta atsendenik gabe» iraungo duala gure Unibersidadeak bereziki ta gure irakaskintzak bere zabalean eskatzen dituan berri-tuak antolaten. Bai, irakasleak «eskutetan dituzten lan-tresnak, lanerako gauza-ezak dirala ikusteak» eta bai «ikasleak sarri somatzen duten beren inguruko utsunek, garrakika eskatzen du, lengo arduradun eta napoleon-zurajeak ausi ditzagula. Gaur, artu dan berri-tu-bidean kaltegarri izango litzake, iritzi degun bide-guretzan pott egitea. Eraberitxe au eztegu zuraje-aldaketa lotu batean utzi bear; baizik eta geldirik gabeko aldaketa etekintsuan sartu bear degu, berriz aurreraka joan dedin gizartearekin batera.

Baiña Villar Palasi'ren itzaldian oargarriena au da: or agiri dan asiera aide ori aitortzea. Egindakoa, esan du, egitekoari bide batzuek urratzea besterik ezta izan. Oiek izango ditugu geroko aurrerakada guzien iturburuak. Onela adierazten zaigu Ikasleen Elkartasunen Agirian: «Artu dan neurri au, bearekora zan. Onek eutsi bea r dio giro berriari, ikasleak berak aldaketa berri sakonean auzetu ditzaten bitartean. Ezpaita komeni, ikasleak etsipenaren utsunera eramaterik; ezta gautek artu diran berri-tuetan tar-tean sartzeke gelditzerik ere. Aldaketa berri oietan ikasleen eragin ta eskua, alhora utzi-ezina da».

Unibersidadeko lan auetan ikasleak lagun artzea, orainarte ikusi ez dan jokera da. Agindu zaiena, beraz, ezta zapuztu bear ezta gazteekiko uste ta konfiantza, ustel laga bear ere. Villar Palasi'k garbi itzegin du: «Guztiok tarteko izan bear dezue lanean». Izan ere, Unibersidadeko eraberitza, guzian lana da; ikasleena ta gizarte osoarena. Ministeritza-alkiatik aginduko zabalitza ezpaita nalkoa. Ta «Unibersidadearen antolaketa berria, ezin diteke goiko lege-utsez moldatu».

TELEBIXTAREN ETA TRENAREN MIRARIAK

«Gaur, ordea, Leon Zitronen'k eta Kosko'k; alegia, irriatik, telebixtak, garralabide berriek, trenak, kamio-
noak, akabatu egin dute», dio Henri Roanne frantsesak. Zer akabatu? Frantzia'ko Flandetako flamenkera.

Etia hau azaltzen digu segidan: «Gazteek ez dute janarik «patois» hori erabiltzen» («patois», noski, frantsesa ez dan hizkera).

Euskera garbiz eta jatorrez esateko, beraz: Lille inguruko eskualdeetan («le Nord» paristarrentzako, Breñaña «l'Ouest» dan bezelaxe) flamenkera azkenetan dago.

Zergatik ote? Arrazoiña gauza nabarmena zaio Roanne jaunari: irri-
tiak, telebixtak, trenak, flamenkera hiltzan dute, eta frantsesa indar-
tzen. Aurrerapenak berak hiltzen du flamenkera, eta frantsesa indar-
tzen. Gauza bitxi bat, ia-lia mirari bat...

Steenwoorde'n, Rexpoede'n, Ghyvelde'n Rubruck'en (lau herri hauek noski, frantsesak dira errotik!) flamenkera oso ahulduta dago: «Larehun bat hitzetako hitzegi huts bat», Victor irakasleak azaltzen duenez.

Bistan da: hanko jendeak ez du ezer jakin nahi flamenkera hortaz: Hazebruck'en (hau ere Frantzia

da, noski) flamenkerazko eskolak alde batera utzi dira, ikaslerik ez ta...

Bray-Dunes'ko alkateak dionez, halere, 45 urtetik gorako jendeekin, bai Bray'en eta bai inguruko herri guzietan, «Kassel'go flamenkeraz» mintzatu beharra dago, frantsesez ez baitakite. Harrigarria!

Zenbat horrela? 150.000 bat oraindik, estadistikek diotenez. Zaharrak gehienak, jakia, eta bi-mintzodunak ere gehien gehienak. Luis XIV-garren garaiean Flandetako eskualde hau Frantzia'ren menpean jarri zanean, barruti osoak (Lille, Dunkerque, Calais, Boulogne, eta abar) flamenkeraz mintzo ziran, Belgika'ko alderdian bezelaxe (gaurko Belgika'ko alderdian esan nahi dugu, garai hartan Belgika'rik ez baitzegoen). Gaur herrikia txiki batzuk mintzo dira flamenkeraz, itsasertzean.

Orain dala berrogei urte, esate baterako, Belgika'ko flamenegar teatro-taldeak joan ohi ziran herri herri, Frantzia'ko aldean; eta bertako frantsesak biziki maite zuten flamenkerazko antzerkia. Gaur ez, omen: gaur bost axola zaie, eta belgikar taldeek utzi egin diote ohi-turari.

Hau guzia, Roanne frantsesak dionez, penarik gabe gertatu da: «il n'y a guere de récrimination, pas de revendications: les Flamands français ne sont pas flamingants!»: alegia, frantses flamenarrak ez dira flamenegar abertzaleak. 1945-ean Lille'ko apaiz abertzale bat afusillaturik hil zala, ordea, ez dute han denek ahaztu!

«Normala» da, omen, hau guzia... Telebixtak eta trenak, irriatik eta kamio-
noek, hondatu egin dute flamenkera. Roanne'ren ustez ez dago besterik: mundua hala da...

Baiña gure kezka haundiago egin ten iritzi hunek. Guk ez genekien Holanda'n eta Belgika'n ez trenik, ez irratirik, ez telebixtarik eta ez kamio-
noik ez dagoela!!!

Orain ba dakigu. Egunero ikasi ohi omen da zer bait!

DESKANTSUA

Deskantsatu bearra dauka de-
rrigor gizonak gaur egunian. Beste-
la, gerra-mandoaren antzera, bide
bazarrian lertuta gelditzeko arri-
ku gogorrian dago.

Gogoratzen naiz ondo nere jai-
terrian eta ingurutako errietan txi-
ka nintzaneko gizonenetzat. Gizon
zintzoko gizon zintzori baldin ba-
zan. Lenengo meza entzunda beria-
laxe lanian, iluntzian oso berandu
arte. Urteko bakaziorik etutzen, ba-
nian ezda ere beren martxatik bei-
nere irtetzen.

Gaur ez dago orrelako konturik.
Gaurkoak, martxatik zeoro irtenda
gabiltz. Orregatik gizonak, nai ta
naiez, bakazioak artu bearra dauka.
Bere lana era bat alde batera utzi,
eta egunetan den-denak auztu-ta
beste era batera bizi bearra. ¡Or
konpon gañontzeko danak!

Deskantsatu. Lo egin lasai. «Lo ta
lo». Aita Olabidek bere Itun Berriko
pasajo baten dion bezela. Espiritu-
ari lasialdi eroso eman.

Artu duan urteko oporraldiak ge-
ro urtearen buruko lanari lagundu

eraziko dio. Espirituak sosegatu ta
arindu. Elburuak garbiago ikusi. Be-
rriz ekiteko gogoari obeto ezarri.

Bein edade batera iritxita, dauz-
kagun indarrak neurtu bearra dau-
kagu. Zenbat dezakegun eta zer gel-
ditzen egiteke. Gure urtearen aiz-
ken mugaraño pentsatzen ditugun
danak bukatzeko ¿gai izango al ge-
ra?

Urtearekin batean espiritua ira-
baitzen dioja. Geiago ta geiago ar-
gitzen. Gaztetan ikusten eziranak,
edo lañotan nabaitzen genuanek,
egunetik egunera argitan azaltzen
zaizkigu.

Urteekin batera badoatzi lausotu
gaituen engañu geienak.
Bañan indarrak neurri berean di-
joaz gutxitzen. Indarrari kontu egin
bear bereziki ¡kontu, gaztetan edo
sasoiako gñanian neurri gabe ge-
ure lanetan kastatu genitun indarra-
ri!

Besteari bukaeraño eman al-iza-
teko, geratzen zaizkigun indarren
arkibidea, inventarioa egin.

Lanari neurria artu. Tartean-tar-

tean geure buruari etseden aldiak
eman.

Geure espiritu lanetako igiene
bat bear genuke. Sertillanges, do-
miniko prantses jakitsua izan zana-
ren kontseju bereziak bear genituz-
ke beti aurrean. Sasoi batean, ne-
katuta negonean batez ere, Serti-
llange-ren «La Vie Intellectuelle» li-
burua askotan irakurtzen nuan.

Orain ez zoritxarrez. Denporarik
ez det.

Sertillanges zarrak zion, espiri-
tua bearrean erabiltzia baño bere
kasa dabillen zaldiaren antzera la-
gatzea askoz obe dala askotan.

Guk uste ez izanarren, lotan gau-
denian ere ba dakilla lana egiten
espirituk.

Kontseju sakon eta paregabeak
abetekek espiritu lanetan dabillana-
rentzat. Beñiere auztu bear ez ge-
nituzken kontsejuak.

Zoritxarrez geure zaldi ori beartu
bearrean bearez, oñal jario dara-
makigu saietsetik geienetan.

Jose de Arteche

«GANDHI - URTEA» ORAINDIK ORAIN ASI ZAIGU

CARLOS SANTAMARIA ANSA'K

Mahatma Gandhi pakezale handia 1868 urtean jai-
zan, Urrilak 2, Indiako Pordabar izena dun urian. Urren-
go urtean izanen da beraz bere lenengo eunurtekoa.
Hori dalata urte osoa, 1968-ko Urrilaren bitatik 1969-
ko Urrilaren bitara, Gandhin izena eramango du. «Gan-
dhi-urtea» mundu guzian ospatuko da.

Euskal-Herrian ere bai zer bait egin beharko genuke,
gizon orotan honen oroi-pena alpatzeko. Uste dudanez,
emengo aldizkariak ez dute oraindik deus esan, eunur-
teko honetzat. Orain erderaz idazten ez dudanez gero,
Z. A.-n gaia atera nahiko nuke, nere euskera moldakiz-
taz bada ere.

Egia da batzuek uste dutela Gandhi erabat desmo-
datuta dagoa, eta, bestaldetik, bere jokabideak Mend-
dabaleko herrietan ezin erabiltzekoak direla.

Bainan, gogortasun gabeko erreboluzioaren prolema
bazterretan eztabaidatzen ari da orainoan. Sail hontan
klasikorik handiena Gandhi daukagu ta hortik pasa be-
har da, nahi ta nahiez, nolanhako jakinkizunean itsu
itsuan ez ibiltzearen idealkoetatik igaro behar dalako
betean.

Gandhi ez ziran idealista uts bat, sasi mistiku bat,
oso gizon pratikoa baizik. Bere politika jokoa, bere eki-
naldiak, zeatz meatz pentsa ta prestatu oi zituen.

Gandhi-
k asmatutako izkiliuak, «desobediencia zi-
bila» ta «ez-lankidetasuna», alegia, ez ziran nolanhako
jostailuak. Gandhin oldarren aurrean Ingelesak estutu-
ri arkitu ziran askotan, atekarik nola atera ez zeki-
tela.

Britanikoak ez ziran zenbaitek uste dituzten etsai
«kabileroitsuak», gogorrak eta desleialak baizik. Beren
zigorra izugarria izaten omen zan noiz nahi eta maiz.

Gatzaren istilua arrotu zanean, esate baterako, in-
gelesek eun mila indiotar sartu zituzten gartzelan.
Gandhi bera bost aldiz itzalpetua izan zan, 1919, 1922,
1930, 1932, eta 1942 urtetan, alegia, eta giltzapean lu-
zaro egon behar.

Badaude erreboluziogile batzuek Gandhin jokabi-
deak kopiatu nahi dituztenak, bainan azalez soilik. Sa-
tyagraha-nerri izpiritua ta mamia onartzen ez dituzte-ta.
Gandhin indarrak handiena leialtasuna zala jakitea ko-
meni izanen litzaieke horrelekoeri.

Aipatutako erreboluziogileak uste dute ez-bioen-
tzia, indarrezko eta odolozko izkiliuk bezela erabili di-
tekela. Bainan hau ez da egia. «Egiaren oldarra» dala-
ko Satyagraha-k dagokion efikazia izan dezan, barne-
ko konbersio batetik asi behar omen da. Autentikoa,

egiakzkoa, barnekoa, izan behar da, ez bakarrik azalez-
koa.

Gandhi-
k beti zintzo ta garbi jokatu zuen: hortik el-
du zitzaion, izan ere, bere itzal izugarri guztia. Gizon
maltzur bat izan ezkeru, laster ikusiko zitzaiokean.

Inglaterran orixe esaten zuten askok, hau da Gandhi
zimarkun bat zala eta bere gogortasun gabeko ekitea
azpikeria izan, besterik ez. Gandhi bere leialtasunez
eta zintzotasunez albiste proba eman zuen, ordea,
azkenean iritzi hori azaltzen. Inor ausartzen ez zala.

Exenpluak milaka eman genitzaie. Bat gutxienez
emateko, oroi dezagun, azkeneko gudate handia asi za-
nean, Gandhi bereala indiotarren erasoak suspentitu
eta gerazi zituela, horrelako egoeraz protxatu nahi ez
zuelako. «Hutid galdakidetzat euki ez dut nahi» esan
omen zuen.

Batzuek uste izango dute jokaera hori lilurakeria za-
la besterik ez «Gudate gudate ta ta horrelako bideak
batero efikaziarik izan ezin dezakete» esango dute ba-
tu hoiak. Barneko autentizitateak, barneko egiazkotasu-
nak, ez bakarrik moralaren aldetik, baita ere efika-
ziaren sailean, ahal izugarririk daukala ikusi nahi ez
dute.

Esan dezagun, puntu hortaz, Gandhi koldarraren bat
ez zala. Bere iritzi, biolentzian sinesten dutenek biolen-
tzia erabiltzea obe dute desohorean erortzea baino.
«Inork biolentzi ta koldarkeriaren artean aukeratu be-
har izan ezkeru, biolentzia kontsellatuko nioke nik inor
horri... Biolentzian sinesten dutenek izkiliuak erabili
ditzaten, biolentzia obe dalako, laidoa baino» —esa-
ten zuen Gandhi Mahatmak. Bainan gero, hau gainera-
tzen zuen: «Nik, berriz, Satyagraha, odolozko bideak
baino, amaika bider obeagoa dala uste dut».

Eta nik uste dudanez, abantaila hori ez da bakarrik
moralaren saietatik, baita ere efikaziaren aldetik.

Bide jakin baten efikazia ezagutzeko beraren elbu-
rua ezagutu behar da lehenik. Gandhin elburua ez zan
besteen elburua. Berak esan oi zuen: «Ez izan uste in-
gelesak joango diranene zuek libre izanen zeratela. Ba-
liteke lehen baino menpeagoak izan, indiotar eskua-
tan. Herri bat libre izateko lenengo da bere nortasuna
gora dedila. Nortasunik ez dun herri bat, nola izanen
ahal da libre?».

Hori zan Gandhin elbururik nagusia, alegia, lu-
rrean etzanik zeuden herria, zutik jarri ta egiazko lu-
rria biurtu. Hortarako, bide pakezkoak iruditzen zitzaiz-
kion egokienak. Bere efikazia ez zan nunbait besteen
efikazia.

Zeruko Argia

Zuzendaria:
**ANTONIO ITURRIA
ASTIAZARAN**

Naparroko-Kantauriko ta Ara-
goiko Kaputxinoak argitaratua
(Carlos III, 22, Pamplona)

DONOSTIA'n:
Oquendo, 22: Telf. 26666

ARPIDE-SARIA:
Urtekoan 190 Pta.
Atzerrian 265

Aldez artu nal bada, galdetu.

LARRESORO


FAGOR

Eraria epela dagola?

FAGOR'ek oztuko du berela

SIGMA

Elgoibar



Kontuartuek gaude espaldi
Erriko ta erbesteko.
Oso itxua bear du batek
Au ondo ez ikusteko.

Ekzon-berriak bear dutena
Bizimoduan asteko,
«Sigma» makina josteko.
Etxe-bizitza egokia ta